KARLOS APEZTEGIA JAKAREN ATXILOKETA SALATZEKO MOZIOA

Karlos Apeztegia Jaka Hernaniarra Guardia Civilak atxilotu zuen 2018ko urriaren 16an.
Aurretik 21 urte baino gehiago preso eginak zituen, 2013an kartzelatik atera zen arte. Beste preso batzuena bezala, kartzelaldi bereziki gogorra izan zen Karlosena: Huelva, Malaga... urruneko kartzelatan egon zen eta, besteak beste, bere alabarekin telefonoz euskaraz hitz egitea ere debekatzen zioten.
ETAk 2011n armak behin betiko uztea erabaki zuen eta, ondoren ere, Euskal Herrian bakearen alde armagabetzea eta bestelako urratsak egin ditu aldebakartasunez. Azken urratsa desagertzea izan da eta, ondorioz, egun, ETA jada ez da existitzen.

Beraz, Euskal Herrian bizi dugun une honetan Karlosena bezalako atxiloketek elkarbizitzari ez diote batere mesederik egiten. Karlosi, familiari, lagunei eta Hernaniko herriari kalte egiten dio. Komunikabideetan 2002 eta 2003ko zalantzazko gertaera batzuk agertu dira atxiloketa justifikatzeko, baina adierazten dugu, Karlosen atxiloketak ez duela justifikaziorik eta bakea, demokrazia eta elkarbizitza urratzen dituela.

Hau guztiagatik Espainiako Gobernuari eta PSOEri eskatzen diegu:

1- Karlos Apeztegia Jaka berehala aske uzteko
2- Demokrazia eta elkarbizitzaren aldeko ekintza eta politikak abian jar ditzala.

Karlosen lagunak

Hernaniko Udala
SARRERA
2018 URR. 25
Zkia. 6256
Atala: ALKATETZA
KOPIA: IDAZKARITZA

· Mª Pilar Irastorza Eizmondi 72.441.752 · D.